



LABURPENA

**UDALERRI euskaldunetan horren
BIZIRIK dagoen HIZKUNTZA
nabarmendu nahi duen ekimena.**

uema

BERTATIK BERTARA

Azalpen txostena

ZER DA BERTATIK BERTARA?

Bertatik Bertara da udalerri euskaldunetan bertako hizkuntza nabarmendu nahi duen ekimena. Kanpaina honen bidez herri euskaldunetan horren bizirik dagoen hizkuntzaz goatzera animatu nahi ditugu bisitariak eta hori horrela izan dadin, zerbitzua euskaraz ematera kontzientziatu nahi ditugu zerbitzu sektoreko langileak.

ATARIKOA

2020an ekin genion *Bertatik Bertara* kanpainari COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, goitik behera aldatuko zela ikusita batetik bestera bidaiatzeko eta atsedeen egunak antolatzeko modua. Gure bazterrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango zela aurreikusita, UEMAk, udalek eta beste hainbat eragilek bat egin zuten *Bertatik Bertara* kanpainarekin, herritarrei eta bisitariari erakusteko udalerri euskaldunak zer-nolako altxorra diren, eta bertatik bertara zenbat goza dezakegun. “Gure bazterrak ezagutzera eta maitatzera gonbidatzen zaitugu. Horrekin batera, horren bertakoa den eta horren bizirik dagoen hizkuntzaz goatzera animatu nahi zaitugu”.

Bertatik Bertara kanpainak izan zuen erantzun positiboa ikusita, 2021ean kanpainari jarraipena egitea erabaki dugu. Iazko balorazioak kontuan hartuta, 2021eko kanpainan arreta ostalaritzan jarriko dugu, batik bat, baina baita bestelako sektoreetan ere.

LELOA ETA GARAPENA

BERTATIK BERTARA izango da lelo nagusia. Horrekin batera, honako beste hiru hauek agertuko dira: gure herriak, gure hizkuntza, gure arnasa.

Behean, beste modu batera, eskuz-edo estatuko beste hizkuntza batzuk agertuko dira:

Nostre poble, la nostra llengua, la nostra gent.

Gent de mar, de rius i de muntanyes.

Gent que parla de vida.

Nuestro pueblo, nuestra lengua, nuestros latidos.

Os nosos pobos, a nosa lingua, a nosa xente.

HELBURUAK

Kanpainaren helburu nagusiak izango dira:

- Udalerri euskaldunak balioan jartzea, zer-nolako altxorra diren erakutsiz.
- Bisitariak horren bertakoa den eta horren bizirik dagoen hizkuntzaz goatzera animatzea.
- Zerbitzu sektoreko langileak jabetzea zerbitzua euskaraz emateak eskaintzen duen balio erantsiaz.

EUSKARRIAK

- Udaleko / turismoko webguneetan txertatzeko edukia: bannerrak eta albistea.
- Spot moduko bideo laburra, kanpaina iragarritz.
- Taberna eta jatetxeetan jartzeko mahai gainekoak.
- Kanpainaren berri emateko oharra oinarritzko diskurtsoarekin. UEMAk ohiko merkataritza kanpainarekin batera bidaliko du.
- Sentsibilizaziorako bideoa.

MAHAI GAINEKOA

Leloa, testu nagusia eta hiztegia azalduko dira mahai gainekoan. Hiztegia bost hizkuntzatarantz itzuliko da: katalana, galiziera, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.

Mahai gainekoan azalduko den testua:

Gure herria, gure hizkuntza eta gure jendea ez da postaletan kabitzen.

Azken hilabete hauetan, gainera, ikusten ere ikasi dugu. Ingurukoari beste modu batera

begiratzten. Ondoan daukagunaz ohartzten. Bertakoa zaintzen. Asmatu dugu noizbait loratu ondoren sustraletara itzultzen.

Mahaian esertzea eta bertako produktuak dastatzea, gure hizkuntza entzutea edo gure bazterrei hitz egiten uztea bihurtu daiteke bidaiarik ederrena. Bizirik gaudela sentitzeko pasaporteak. Izan ere, hemen euskaraz bizi gara. Euskararen herria da gurea, eta elkarren ondora bilduKata sentitzen dugu babesa. Hurbiltasuna. Hizkuntzaren arnasa. Bertatik bertara. Ongi etorri eta on egin!

BERTATIK BERTARA
Gure herria, gure hizkuntza, gure arnasa

El nostre poble, la nostra llengua, la nostra gent.
Gent que parla de vida.
Nuestro pueblo, nuestra lengua, nuestros latidos.
Os nosos pobos, a nosa lingua, a nosa xente.

Gure herria, gure hizkuntza eta gure jendea ez da postaletan kabitzen.
Azken hilabete hauetan, gainera, ikusten ere ikasi dugu. Ingurukoari beste modu batera begiratzten. Ondoan daukagunaz ohartzten. Bertakoa zaintzen. Asmatu dugu noizbait loratu ondoren sustraletara itzultzen.

Mahaian esertzea eta bertako produktuak dastatzea, gure hizkuntza entzutea edo gure bazterrei hitz egiten uztea bihurtu daiteke bidaiarik ederrena. Bizirik gaudela sentitzeko pasaporteak. Izan ere, hemen euskaraz bizi gara. Euskararen herria da gurea, eta elkarren ondora bilduta sentitzen dugu babesa. Hurbiltasuna. Hizkuntzaren arnasa. Bertatik bertara. Ongi etorri eta on egin!

	EUSKARA	ESPAÑOL	CATALÀ	GALEGO	FRANÇAIS	ENGLISH
Egun on		Buenos días	Bon dia	Bos dias	Bonjour	Good morning
Arratsalde on		Buenas tardes	Bona tarda	Boas tardes	Bonsoir	Good afternoon
Gabon		Buenas noches	Bona nit	Boas noites	Bonne nuit	Good night
Zer nahi duzu?		¿Qué quieres?	¿Qué vols?	Que queres?	Que veux-tu?	What would you like?
Berdin		Igualmente	Igualment	Igualmente	Également	Same to you
Kaixo		Hola	Hola	Ola	Salut	Hello
Zenbat da?		¿Cuánto es?	¿Quant és?	Canto custa?	Combien ça coûte?	How much is it?
Gero arte		Hasta luego	Fins després	Adeus	À plus tard	See you later
Bihar arte		Hasta mañana	Fins demà	Ata mañá	À demain	See you tomorrow
Agur		Adiós	Adeu	Adeus	Adieu	Good bye
Eskerrik asko		Muchas gracias	Gràcies	Moitas grazas	Merci	Thank you
Ez horregatik		De nada	De res	Es benvido	De rien	You're welcome



Oharra: zuzenketa eta aldaketa batzuk izan ditzake egiteko eredu honek

Mahai gainekoak erabiltzeko irizpideak:

Kanpainak bi hilabeteko iraupena izango du, uztaila eta abuztua, baina badakigu taberna askok ez dutela mahai gaineko nahikoa izango egunero mahai gainekoak banatzeko. Bisitari asko dituzten herrietan astean zeharreko egunak balia ditzakete mahai gainekoak erabiltzeko edota kanpaina uztailaren 15etik abuztuaren 15era murriztu. Herri txikiagoek malguago joka dezakete.

BERTATIK BERTARA INFORMAZIO ORRIA

Ohiko merkataritza kanpainarekin batera *Bertatik Bertara*ren berri ematen duen informazio orria sortuko du UEMAk. Informazio orria bera erakusleihoan jartzeko aproposa izango da, gainera hiztegiara sarbidea izango duen QR bat izango du ikusgai, horrela, bisitariei euskara partekatzeko aukera eskainiz.

Merkataritzako zerbitzua UEMAk ematen duen herrietan honela jokatu da:

- 2.000 biztanletik beherako herrietan zuzenean UEMAk bidaliko du korreoz.
- 2.000 biztanletik gorako herrietan informazio orriak inprimatuta eramango dira udalera eta gero udala arduratuko da banatzeaz.

Merkataritza zerbitzua UEMAk ematen ez duen herrien kasuan, informazio orria pdf formatuan bidaliko da udalera.

BERTATIK BERTARA

gure herria, gure hizkuntza, gure arnasa

Kanpaina honen bidez herri euskaldunetan horren bizirik dagoen hizkuntzaz goatzera animatu nahi ditugu bisitariak eta hori horrela izan dadin, zerbitzua euskaraz ematera gonbidatu nahi zaitugu.

Zer egin dezakezu horretarako?

- ✓ Lehen hitza eta agurrak euskaraz egin bezeroari, baita eskerrak eman ere.
- ✓ Hizkuntza paisaia zaindu (kartelak, menua, ordutegia, musika, webgunea eta sare sozialak...).

Taberna edo jatetxea baduzu eska ditzakezu Bertatik Bertara kanpainaren mahai gainekoak arnasguneak@uema.eus helbidera idatzita. Euskarri hau bera ere eskaparatean ere itsas dezakezu, horrela QRaren bidez bisitariak euskara praktikatzeko oinarritzko hiztegia eskainiko diezu.





BERTATIK BERTARA
Gure herria, gure hizkuntza, gure arnasa

El nostre poble, la nostra llengua, la nostra gent.
Gent que parla de vida.
Nuestro pueblo, nuestra lengua, nuestros latidos.
Os nosos pobos, a nosa lingua, a nosa xente



Animate a practicar euskera, escaneando el QR



Oharra: zuzenketa eta aldaketa batzuk izan ditzake egiteko eredu honek

SENTSIBILIZAZIO BIDEOA

Ekimenaren helburuetako bat da turismo sektoreko eragileak jabetzea zerbitzua euskaraz emateak eskaintzen duen balio erantsiaz. Horrenbestez, oso garrantzitsua deritzogu bisitariekin

hartu eman zuzena duten pertsonengana iristea, kanpaina honetan jokatzeko duten paper garrantzitsuaz ohartzeko. Iaz online saioa sortu bagenuen ere, aurten erraz zabaltzeko modukoa izango den bideo bat sortzea hobetsi dugu, ezaugarri hauek izango dituenak: motza, zuzena eta didaktikoa.



KRONOGRAMA

- **Maiatzak 14:** kanpainaren berri eman idatziz udalei.
- **Maiatzak 20:** kanpainaren berri emateko informazio saioa, online.
- **Maiatzak 17-28:** mahai gainekoak eskatu.
- **Ekainak 1-7:** Bertatik Bertararen berri eman merkataritza-ostalaritzako establezimenduetan (UEMAk eskutitz bidez bidaliko du merkataritza zerbitzua ematen duen herrietan).
- **Ekainak 14:** spota zabaldu.

- **Ekainak 7-20:** sentsibilizazio bideoa zabaldu.
- **Ekainak 15:** UEMAko teknikariak mahai gainekoak herrietan banatu.
- **Ekainak 15-30:** tabernetan mahai gainekoak banatu.
- **Uztaila-abuztua:** kanpaina.

GASTUA

UEMAk honako gastua hartuko bere gain:

- Diseinua eta maketazio lana.
- Ikus entzunezkoa: spota.
- Online iragarki kanpaina.
- Mahai gainekoen inpresioa UEMAren logoa duten kasuetan.

Mahai gainekoetan udalaren logoa jartzea erabakiko balitz, inprenta gastua udalak asumitu beharko du.

ESKAERAK EGITEKO

<https://labur.eus/BBeskaerak>